



Esp. zk.: SUBV_CON_COMPET/2026/1

DEIALDIA, IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEEI NORGEHIAGOKAKO
ARAUBIDEAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO, EMAKUMEEN ETA GIZONEN
ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN PROIEKTUAK EGIN DITZATEN.

2026. URTEA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** [\(2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua\).](#)

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Dirulaguntzak ematea Iruñeko emakumeen elkarteei, kolektibo feministei eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateei, 2026. urtean honako proiektu hauek finantzatzeko: hala bizitzaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eta neskatoen ahalduntzea bultzatzeko sensibilizazioa eta jarreraren aldaketa progresiboa sustatzen duten proiektuak, nola hori bultzatuko duten azterlanen eta dokumentazioaren ezagumendua, ikerketa eta zabalkundea bultzatzen dituztenak. Proiektuak edo jarduerak oso-osorik Iruñeko udal-mugartean egin eta Iruñeko herritarrei bideratu beharko dira.

2. Deialdiaren helburua:

Iruñeko Udalaren Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planaren xede nagusietako bat da 'Iruña bagara arduratsu' izeneko parte-hartze eta eragin politikoaren lan-ildoak garatzea, berdintasuneko hiri-eredu bat eraikitze eta finkatzeko emakumeen protagonismoa eta parte-hartzea bultzatuz.

Ildo horretan, planak proposatzen du emakumeen lidergoa bultzatzea bai elkarteetan eta erakundeetan, bai haien elkarteetatik eta erakundeetatik ere, ikuspuntu feminista eta ikuspegi intersektionala bermatuta; herritarrak sensibilizatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa handitzeko, eta azkenik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdietsi eta sendotzeko gizarte-eztabaidan aurrera egiteko guneak sortzea.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046



Deialdi honek Udalaren esparrutik emakumeen elkarteek, talde feministek eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuek egindako jarduketak sustatzeko laguntza-tresna izan nahi du. Genero berdintasunaren aldekoak, balio-aldaketak sustatzen dituztenak, bizitzaren alor guztietan emakume eta neskatoen ahalduntzea lortzera bideratutakoak, zainketen balioa aitortzekoak eta emakumeen eta neskatoen aurkako biolentzia oro –edozein eratakoa– ezabatzeakoak, emakume eta neskato guztiek herriar gisa dituzten eskubide guztiak balia ditzaten laguntzeko.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

a) 1. modalitatea: 5.000 euro edo gutxiago eskatzen ahalko da. Modalitate honetan, elkarte edo kolektibo feminista ez diren irabazi asmorik gabeko entitateak bakarrik aurkezten ahalko dira. Entitate eskatzaile bakoitzak proiektu bakarrerako eskuratzen ahalko du dirulaguntza:

b) 2. modalitatea: 14.000 euro edo gutxiago eskatzen ahalko da. Modalitate honetan, emakumeen elkarteak edo kolektibo feministak BAKARRIK aurkezten ahalko dira. Entitate eskatzaile bakoitzak proiektu bakarrerako dirulaguntza eskuratzen ahal du.

Entitate batek dirulaguntza eskatzen badu 2. modalitateko proiektu baterako, ezin izanen du beste proiektu bat aurkeztu 1. modalitatean, eta alderantziz.

Dirulaguntza eskatzeko proiektuak honako helburu hauetako edozeinetan kokatu beharko dira:

1. Bizitzaren edozein arlotan sortzea emakume eta neskatoen autonomia eta ahalduntzea erdiesteko bideak.
2. Balio patriarkalak eta desparekotasuna eta genero-indarkeria –edozein eratakoa– elikatzen dituzten ereduak aldatzea.
3. Eremu guztietan bultzatzea emakumeen eta neskatoen eragiteko, parte hartzeko eta ahalduntze kolektiborako gaitasuna.
4. Emakume eta neskatoen lidergoa sustatzea, eta haien protagonismoa zein ikusgaitasuna eta aitorpena berreskuratzea, gizarte-, ekonomia-, kultura-, enpresa-, arte-, kirol- zein zientzia-garapenari loturiko esparruetan.
5. Hausnarketa sustatzea, zainketak eta erantzunkidetasuna baloratzea, bateragarritasun-beharrak asetzea eta sexuaren araberako lan-banaketa kolokan jartzea.
6. Emakume eta neska gazteengan osasunaren eta bizi-kalitatearen kudeaketa aktiboari buruzko gogoeta eta azterketa sustatzea.
7. Generoaren interseksionalitatea aintzat hartzea beste desberdinkeria-ardatz batzuekin batera, hala nola gizarte-maila, adina, sexu-aniztasuna, genero-identitatea, egoera administratiboa, kultura-aniztasuna, aniztasun funtzionala, ezgaitasuna eta hizkuntzen aniztasuna.
8. Genero-indarkeriari eta emakume eta gizonen arteko ezberdintasun-egoera sustatu eta mantentzen duten harreman afektiboak aurre egiteko estrategien ikasketa aktiboan laguntzea.
9. Hiriko plangintzan, kontserbazioan eta antolaketa hobekuntzak proposatzea, hiria segurua, eta aniztasunarekin, eta bateragarritasun eta erantzunkidetasun beharrei dagokienez errespetuzkoa bihurtu dadin.
10. Laguntza ematea Emakumeen Etxea finkatu dadin Iruñeko emakume askotarikoen topaketa-, gogoeta- eta ikas-leku gisara, emakumeek banaka eta taldeka duten gaitasuna indartuz gizartean eta politikan eragiteko eta aldaketak egiteko.
11. Elkartearen barne-gaikuntza hobetzea, antolaketa- eta kudeaketa-behar berriei erantzuteko, bai eta elkartearen kudeaketarako baliabide digitalen eskuragarritasuna hobetzea ere.

Agiri, publizitate, irudi eta material orotan hizkuntza inklusiboa erabili beharko da, emakumeen irudi baztertzailerik eta estereotipo sexista oro ekidin eta honako balio hauek dituen irudi bat sustatuko da: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rol eta -nortasun askotarikoak.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046



Jarduerak ahal dela doakoak izanen dira, herritarrei irekiak, eta behar bezala hedatuko dira (ez dira diruz lagunduko aurrez hedatu ez diren jarduerak, E apartatuan jasotako hedapen-neurriekin bat). Doakoak ez diren jarduerak zergatik ez diren doan justifikatu beharko da, eta dirulaguntza kudeatzen duen unitateak aldeztu aurretik baimendu beharko ditu. Halaber, konpentsazio-neurriren bat ezarri beharko da errenta-maila baxua dutenek parte-har dezaten laguntze aldera. Jarduera horiek gauzatzeko, entitate onuradunak idatziz egin beharko du doakoa ez den jarduera egiteko beharra justifikatzeko eskaera, betiere jarduera hori programatu eta hedatu baino lehen. Dirulaguntza kudeatzen duen unitateak baimena ematen badu bakarrik egingen da jarduera.

Jarduerak egiteko epea: 2026ko urtarilaren 1etik 2026ko abenduaren 15era.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 159.000 €

Gehienezko aurrekontu-kontsignazioa deialdi honek ezartzen dituen bi modalitateen artean banatzen da, honela:

- a) 1. modalitatea: 40.000 euro.
- b) 2. modalitatea: 119.000 euro.

Modalitate bakoitzerako esleitutako aurrekontu-zenbatekoa horietako bakoitzean aurkeztu eta sartzen diren proiektuen artean banatuko da. Modalitate bakoitzean proiektuen lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da balorazioan erdietsitako puntuen arabera.

Dirulaguntzak modalitate bakoitzerako gaitutako aurrekontu-kontsignazioa agortu arte emanen dira, eta proiektuak dirulaguntzarik gabe geratzen ahalko dira nahiz eta 60 puntu (dirulaguntza erdietsi ahal izateko eskatutako gutxienezko puntuazioa) baino gehiago eskuratu. Modalitate bati esleitutako kreditua agortzen ez bada, geratzen den kopurua beste modalitateari gehituko zaio.

Deialdi honi esleitutako kreditua agortzen ez bada, gainerako zenbatekoa Berdintasuneko Unitatearen beste dirulaguntza batzuk, norgehiagokako araubidekoak, areagotzen ahalko ditu, baldin eta azken horiei aurrekontu-kontsignazioa agortu bazaie eta betekizunak bete arren dirulaguntzarik lortu ez duten proiektuak badaude.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/23910/482090

3. Banakako gehienezko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienez ere bi modalitateetan eskatutakoaren % 100 emanen da, betiere kreditu erabilgarririk badago.

- 1. modalitatea: Gehienez ere eskatutakoaren % 100 emanen da. Ezin izanen da 5.000 eurotik gorakoa izan.
- 2. modalitatea: Gehienez eskatutakoaren % 100 emango da. Ezin izanen da 14.000 eurotik gorakoa izan.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da





6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	159.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntza eskatzen ahalko dute emakumeen elkarte, kolektibo feminista eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.
- Irabazi-asmorik gabekoa izatea.
- Egoitza soziala eta zerga-egoitza Iruñean edukitzea eta/edo diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketak osorik Iruñeko udal-mugartean egitea.
- Lankidetzak hitzarmenik edo kontraturik sinaturik ez izatea Iruñeko Udalarekin dirulaguntza zer programa, proiektu, ekintza edo jardueratarako eskatu eta horretarako, eta ez jasotzea alor honen edo Iruñeko Udalaren beste edozein alorren dirulaguntzarik, jarduera horiek berak gauzatzeko.
- Dirulaguntzaren xede diren programa, proiektu, jarduera eta jarduketaren helburuek deialdi honen xedearekin loturik egon beharko dute.
- Proposatutako helburuak betetzeko behar den egitura abian edukitzea, eta helburu horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, eskarmentua eta gaitasuna egiaztatzea.
- Egunean edukitzea tributuei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak dirulaguntza ematen den unean. Iruñeko Udalak ofizioz egiaztatuko du tributu-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzari buruzkoak egunean dituztela, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du. Era berean, dirulaguntza emateko proposamena egin aurretik ofizioz egiaztatuko da ez dagoela zorretan Udalaren Diruzaintzarekin.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

1. Pertsona fisikoak.
2. Irabazi-asmoa duten enpresa eta entitateak.
3. Deialdiaren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduera edo jarduketak aurkeztu dituzten elkarteak eta lagun-taldeak, edota horiek Udalaren bestelako deialdi batean jasotako helburuei zuzendutakoak badira.
4. Dirulaguntzen ordenantzaren 5. artikuluekin bat, ezin izanen dira diruz lagundu herritarrei oro har irekiak ez diren programa, egitasmo, jarduera eta jarduketak, edo irizpide sexistak, arrazistak, xenofoboak eta beste edozein motatako irizpide diskriminatzailerik aplikatzen dituztenak. Horrez gain, diruz lagundutako jarduerak gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna bultzatu beharko du.

Aipatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, eta mantendu diruz lagundutako jarduerak irauten duen epean.



Dirulaguntzen deialdi honetara aurkezteko argibideak, laguntza, orientazioa edota aholkularitza behar dituzten pertsonak Herritarren Partaidetzako Zentrora jo dezakete: "Zentro. Elkarlaneko gunea", Kondestable Civivoxean (Kale Nagusia 2, 2. solairua, VIII. Aretoa. Hitzordua eskatzeko telefonoa: 948 420266.

Online proiektuak planteatzeko aholkua behar izanez gero, laguntza eskatzen ahal zaio EMATIC zentroari (Compañía kalea 29). Hitzordua eskatzeko telefonoa: 948 224594.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a) Dirulaguntzaren xede den helburua bete, proiektua egin edo jokabideari heltzea. Jarduerak Iruñeko lurralde-esparruan eginen dira, eta behar den bezala egiaztaturik dagoen titulazioa eta prestakuntza dituzten pertsonak koordinatu eta eman beharko dituzte.

Parte-hartzea talde jakin batzuei (nerabeak, gizonak eta abar) mugatzen zaien jardueren kasuetan egoki justifikatu beharko da inguruabar hori.

b) Behar bezalako publizitatea ematea nahitaez, dirua zer programa, proiektu, jarduera edo jarduketatarako jaso eta horiek Iruñeko Udalak osorik edo hein batean finantzatu dituela jakitera emate aldera.

c) Azterketen eta ikerketen kasuan, entitate eta administrazio eskudunei zuzendutako ezagutzaren transferentzia-plana proposatzea eta egitea. Alderdi hori eskaera fasean baloratuko da.

d) Iruñeko Udalarai baimena eta laguntza ematea diruz lagundutako programaren, proiektuaren, jardueren edo jarduketaren garapena hedatzeko, aukera berdintasunaren arloan iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera. Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduerak eta jarduketak ezagutarazteko prestatutako jarduketak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak igualdad@pamplona.es helbidera bidali beharko dira, edo unitate kudeatzaileak horien hedapen-zereginetarako ezartzen duen horretara.

e) Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostena aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta jarduera egin dutela eta dirulaguntza zertarako den eta helburu hori bete dutela ere.

f) Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeke zein finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-fitxategietan jasota egon ezean.

g) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster eginen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

h) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046

8

eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat.

i) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.

j) Iruñeko Udalarik jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea.

k) Unitate kudeatzaileari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab. Proiektu bat aldatzeko eskabidea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, deialdi honen F) apartatuan adierazitakoaren arabera.

l) Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

m) Bide publikoan egin eta Udalaren baimena behar duten jarduera, proiektu eta jarduketa ororendako ezinbesteko betekizuna izanen da indarreko araudian ezarritako ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuneko neurriak betetzea. Zehazki, Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute, baita 'Ekitaldi jasangarrietarako gida: Iruña, etorkizun arduratsu eta kontziente baterantz' gidako jarraibideak bete ere. Horretarako, Jasangarritasun plan bat aurkeztuko dute, bainema eskatu den jarduera edo jarduera sorta bakoitzeko.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena emanen dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafiko batzuetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikuluekin bat: BAI ☒ EZ

Xede-epea: ☐

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira, eta horretarako aurretiko baimena beharko da, gehienez ere diruz lagundutako kopuruaren % 25ari eragiten badiote.



Programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egitean moldaketak egiten badira, Iruñeko Udaleko Berdintasuneko Alorrak horiek baloratu beharko ditu aldez aurretik, eta dirulaguntza ematen duen organoak, baimendu. Aldaketa horiek baimenduko dira baldin eta eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta dirulaguntza emateko egintzaren norgehiagokan.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio dirulaguntza kudeatzen duen unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Baldin eta proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera aldez aurretik baimendu gabeko aldaketak sartzen baditu, zilegi izanen da jasotako diru-kantitateak itzularaztea, osorik edo hein batean, edo, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea, osorik edo hein batean. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jardueri eraginen die.

Esku-hartzea gauzatzean gertatzen diren gainerako gorabehera eta aldaketak dagokion txosten-memoriaren bidez jakinaraziko dira, proiektuan baloratzen ez diren alderdien edo xehetasunetan aldaketa hutsak baitira.

Jardueraren finantza-egiaztapen edota -justifikazioaren fasean aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituzten aldaketak bakarrik joko dira egokitzen.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administrazioak egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagirak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak: ☒ BAI ☐ EZ



f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena. Honi atxikiko zaio proiektua aurkezteko inprimakia, deialdi honen IV. eranskinarekin bat (Proiektuaren memoria-inprimakia). .

g) Aurkezpena telematikoki egin behar da Iruñeko emakumeen elkarteei, kolektibo feministei eta irabazi-asmorik gabeko entitateei zuzenduta dagoelako eta EZ pertsona fisikoei (hauek ez daude telematikoki aurkeztera behartuta).

h) Pertsona, entitate zein elkartearen lehenengo aldiz aurkeztu bada deialdi honetara, edo banku-kontuaren zenbakia aldatu badu, deialdi honen unitate kudeatzailearekin harremanetan jarri beharko da Udalaren transferentzia bidez ordaintzeko eskabidearen agiria aurkezteko.

i) Proiektuan egiten diren jarduerak hala eskatzen badute, galdatu beharreko segurtasun neurrien inguruko adierazpena aurkeztu beharko da eta, baita ere, erantzukizunpeko adierazpena, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoan eskatutako baldintzak betetzeari buruz (VI. eranskina).

j) Proiektuaren koordinatzaileak eta arduradun nagusiek genero-berdintasunaren arloan eskuratutako titulazioaren eta jasotako prestakuntzaren kopia, baldin eta entitate eskatzaileak H letrako c) apartatuko 1. irizpideari heltzen badio.

k) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketa zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).

l) Baldin eta jarduera, osorik edo zati batean, azpikontratatzeko bada, VIII. eranskina (Erantzukizunpeko adierazpena) aurkeztu beharko da, eta bertan jaso beharko da pertsona edo entitate eskatzaileak bide publikoan egindako ekitaldi edota ekintza guztien Jasangarritasun plana egin eta aurkeztuko duela.

m) Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkeztu dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Entitate eskatzaileari edo eskatzaileei dagozkien irizpideak: atal honetan gehienez 20 puntu bitarte erdiesten ahal dira.

a) Emakumeen elkartearen edo talde feministaren izenez gero: 20 puntu.

- Emakumeen elkartearen edo talde feministaren kide badira 8 eta 20 emakume bitarte: 2 puntu.

- Emakumeen elkartearen edo talde feministaren kide badira 20 emakume baino gehiago: 5 puntu

- Emakumeen elkarteak edo talde feministak azken 3 urteetan egindako proiektuen historikoa:





NORGEHIAGOKAKO

1 puntu egindako proiektu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura bitarte.

- Proiektuaren koordinatzaileak eta arduradun nagusi izanen direnek titulazioa eta prestakuntza egiaztaturik izatea emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren arloan (5 puntu bitarte, honen arabera: prestakuntzako 20 ordu baino gutxiago, 0 puntu; 21 eta 60 ordu bitarte, 3 puntu, eta 61 ordutik gora, 5 puntu).

b) Emakumeen elkarteak izan ezean: 20 puntu bitarte.

- Azken bi urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoaren deskribapena estatutuetan: 2,5 puntu bitarte.

- Zuzendaritza-batzordearen osaketa parekidea izatea: 2,5 puntu bitarte.

- Entitateak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta azken 3 urteetan egindako proiektuen historikoa: 1 puntu egindako proiektu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura bitarte.

- Proiektuaren koordinatzaileak eta arduradun nagusi izanen direnek titulazioa eta prestakuntza egiaztaturik izatea emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren arloan (5 puntu bitarte, honen arabera: prestakuntzako 20 ordu baino gutxiago, 0 puntu; 21 eta 60 ordu bitarte, 3 puntu, eta 61 ordutik gora, 5 puntu).

2. Proiektuari dagozkion irizpideak (75 puntu bitarte):

a) Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoari lotutako irizpideak: 67 puntu bitarte

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuei buruz aurkeztutako informazioaren kalitatea eta koherentzia: proiektua zedarritzen duen ingurunearen gaineko azterlana, helburuak, egin beharreko jarduerak, parte-hartzea, espero diren emaitzak eta abar: 10 puntu bitarte.

- Genero-ikuspegia txertatzea prozesu osoan (genero-arrakalako egoerak aztertu eta identifikatzea jorratu nahi den esparruan, proiektuaren oinarriak, emakumeen berezko ezaugarri sozialak, psikologikoak eta fisiologikoak aintzat hartzea proiektuaren planifikazioan eta helburuak lortzeko proposatutako jardueretan, segimenduaren zehaztapena eta ebaluazioa): 10 puntu bitarte.

- Intersektionalitatea aintzat hartzea, generoaz gain beste desparekotasun-ardatz batzuk kontuan hartuta: klase soziala, adina, migrazio-egoera, sexu-dibertsitatea, genero-identitatea, dibertsitate kulturala eta funtzionala, desgaitasunak eta hizkuntza-dibertsitatea: 10 puntu bitarte.

- Erabili beharreko baliabideen eta egin beharreko jardueren baliozkotasuna, interesa eta berritasuna (jardueren eraginkortasuna emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunean aurrera egiteko, teknologia berrien erabilera eta online gauzatzeko diseinua, hedapen- eta transferentzia-plana azterketa eta ikerketen kasuan): 27 puntu bitarte.

- Aurrekontua proposatutako jardueretara egokitzea, aurrekontuaren garapen xehatua egitea eta deialdi honetan zehaztutako mugetara doitzera: 4 puntu bitarte.

- Gauzatu beharreko ekintzen bideragarritasuna (bitarteko teknikoak, langileak barne): 3 puntu bitarte.

- Garatu beharreko ebaluazioa, haren adierazleak, tresnak eta ebaluazio-iturriak zehaztuta: 3 puntu bitarte.

b) Sustatu nahi den ikaskuntza eta balio-aldaketa. Atal honetan gehienez 8 puntu bitarte lortzen ahal da.

- Berdintasunaren aldeko jokamoldeak modu aktiboan ikasten laguntzea eta gogoeta egitea emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunei eta horiek eragiten dituzten zioei buruz: 2 puntu bitarte.

- Genero-indarkeriari eta emakume eta gizonen arteko ezberdintasun-egoera sustatu eta mantentzen duten harreman afektiboei aurre egiteko estrategien ikasketa aktiboa laguntzea: 1 puntu bitarte.

- Bide ematea emakumeen eta neska gazteen ahalduntzeari: 1 puntu bitarte.



- Hausnarketari bide ematea balio patriarkalen, genero-estereotipoen eta emakume eta gizonen arteko berdintasunerako eredu berrien ikaskuntzaren inguruan gogoeta egiteko: 1 puntu bitarte
- Bidea ematea emakumeen aniztasunari lotutako ezberdintasunak ulertzeko, sexu- eta genero-identitateari, kulturari, egoera funtzionalari, adinari eta abarri dagokienez: 2 puntu bitarte
- Hausnarketa sustatzea eta jarduketak garatzea zainketak eta erantzukidetasuna baloratzeko, bateragarritasun-beharrak asetze aldera eta sexuaren arabera lan-banaketa kolokan jartzeko: 1 puntu bitarte

3. Jasangarritasun ekonomikoari, ekologikoari eta ingurumenekoari lotutako irizpideak aintzat hartzea: 5 puntu bitarte

- Proiektuak ez ditu barne hartzen jasangarritasun ekonomikoari, ekologikoari eta ingurumenekoari dagozkion irizpideak: 0 puntu.
- Proiektuak barne hartzen ditu jasangarritasun ekonomikoari, ekologikoari eta ingurumenekoari dagozkion irizpideak: 2 puntu.
- Proiektuak indarreko araudiarekin bat egiten du, eta beharrezkoa bada, bide publikoan egindako ekintza, jarduketa eta ekitaldiei ezarri beharreko gutxienezko irizpideak ezartzen ditu: 5 puntu.

Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan guztira 60 puntuko balorazio globala (entitatea eta programa edo proiektua) lortzen ez duten entitateak. Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketa edo jardura solteak. Gutxienez 60 puntu erdiesten ez duten proiektuak ezetsi egingen dira.

Aurrekontu-partida puntuazio bera duten bi eskaera edo gehiago daudenean agortzen bada, 1. irizpidean eskusiboki puntuaziorik handiena duen proiektuaren alde egingen da. Berdinketak bere horretan segituz gero, 2. irizpidearen a) letran zeinek lortu duen puntu gehiago hartuko da kontuan, eta, oraindik ere berdinduta egonez gero, 2. irizpidearen b) letran lortutako puntuazioari erreparatuko zaio, beharrezkoa bada. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingen da.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Zaloea Basabe Gutiérrez, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Zinegotzi Ordezkarria / Ordezkoa: beste zinegotzi ordezkari bat
Batzordekideak:	
1.	Elían Peña Guerrero, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zuzendaria / Ordezkoa: beste alorreko zuzendari bat
2.	Josune Jiménez Unanua, berdintasuneko teknikaria / Ordezkoa: Berdintasuneko beste teknikari bat
3.	Vanesa Eguiluz González, berdintasuneko teknikaria / Ordezkoa: Berdintasuneko beste teknikari bat
Idazkaria:	María Ramírez de Arellano Alemán, aholkularitza juridikoa / Ordezkoa: Lege Aholkularitzako zuzenbidean lizentziadun bat

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:





1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



Baldin eta instrukzio-organoak baloratzen badu aurkeztutako eskabideren batek hobeto erantzuten ahal diela Udalaren beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horretara aurkezteko epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko die, entitateak hala eskatuz gero, eskabidea dagokion deialdira helarazi ahal izateko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 17.4 artikuluekin bat, ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, bat etorrita urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ~~Tr~~amitzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruzko argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako hauek gastu diruz lagungarriak izanen dira:

1. Proiektuari zuzenean lotutako gastuak:

a) Entitatearenak ez diren hizlarien gastuak edo elkarteko plantillan egon eta jarduerak irauten duten bitartean hizlari, mintzalari, lantegigile edo haurren zaintzaren arduradun aritutakoek eragindako gastuak. Hona jardueren arabera diruz lagundu daitezkeen gastuen mugak: Izen-ematea duten prestakuntza-saioak: 100 euro/ordu.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046

Hitzaldiak izen-ematerik gabe: 300 euro bitarte.

Mahai-ingurua izen-ematerik gabe: 150 euro bitarte hizlari bakoitzeko (gehienez ere 4 lagun).

Apartatu honetako faktura guztiek, pertsona edo entitate berak jaulkita ere, berariaz eta xehakatuta jaso beharko dute garatutako jarduera (prestakuntza, hitzaldia, mahai-ingurua), haren izenburua, data, ordu kopurua eta aplikatutako orduko prezioa, bai eta jarduera ematen dutenen maila profesionala ere.

b) Diruz lagundutako jardueren material suntsikorrek eta publizitateak eragindako gastuak.

c) Diruz lagundutako jarduera egiteko lokalen gastua (ezin izanen du gainditu laguntza gisara jasotako gutzitzaoren % 60) eta jarduera garatzeko erabilitako ekipamenduen alokairua (teknikariak, soinua eta abar).

d) Gastuak elkartearendako ekipamendu informatikoetan:

2021eko eta 2025eko deialdien artean berdintasuneko dirulaguntzen kargura ekipamendu informatikorik erosi ez duten elkarteek bakarrik aurkezten ahalko dute gastu hau. Elkarte bakoitzeko gastuaren muga 1.000 eurokoa izanen da, eta erositako materialen helburua eta erabilera azaldu beharko dira.

1. modalitatea: dirulaguntzan emandako diruaren % 20ra bitarte eta diruz lagundu beharreko 1.000 euroko gastu-mugarekin.

2. modalitatea: diruz lagundu beharreko gastua 1.000 eurokoa izanen da, gehienez.

e) Bestelako gastuak (joan-etorriak, otorduak eta hizlarien ostatua). Otorduetan, diruz lagundutako gastua 20 euro izanen da menu bakoitzeko, eta elkarteko pertsona bakarraren gastua onartuko da hizlariari laguntzeko, betiere hori zentzuz beharrezkoa bada. Hotel- eta gosari-gastuetarako gehieneko dirulaguntza 80 eurokoa izanen da, eta hizlariaren gastua bakarrik lagunduko da diruz.

f) Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (hautzaindegiak, ludotekak, adinekoen arta eta abar), muga betiere 100 euro izanen delarik talde eta monitore bakoitzeko.

g) Jarduerara joateak eragindako gastuak gizarte-bazterketako arrisku berezian dauden kasuan (joan-etorriak hirian).

h) Gastu diruz lagungarriak dira neurriak ezartzera berariaz bideratutakoak, hala nola: edalontzi berrerabilgarriak alokatu edo erostea, baxera konpostagarria erabiltzea, birziklatzeko uharteak alokatzea, eta bide publikoan egindako ekitaldietarako ingurumen-aholkularitzak kontratatzea.

2. Proiektuari zeharka lotutako gastuak: (dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25, gehienez ere):

a) Planifikazio-, kudeaketa - eta administrazio-gastuak (gehienez ere dirulaguntzaren % 15 bitarte). Elkarteko langileen nominaren bidez edo batzarretik kanpoko pertsona batek edo kanpoko aholkularitza-enpresa batek igorritako fakturaren bidez justifikatzen ahalko dira.

b) Entitatearen lokalaren alokairua Iruñean, domeinu/webguneak mantendu eta erostea, argi-, ur- eta telefono- eta internet-kontsumoak (dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10 bitarte). Iruñeko egoitzaren alokairutzat joko da, eta hortaz zeharkako gastutzat, faktura hilabete osoei badagokie.



Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira, inola ere ez, gastu diruz lagungarriak izanen:

a) Entitatearen barne-funtzionamenduko jarduerak –herritarrei irekita ez daudenek– eragindako gastuak: entitatearen batzarrak, bilerak edo topaketak, etab.

b) Nominan ez dauden elkarteen zuzendaritzakoen gastuak, jarduerak irauten duen bitartean.

c) Aisialdiko eta jolaserako jarduerak eragindako gastuak.

d) Jardueretara joan edo horietan parte hartu dutenendako lunchek, bazkari-afariek, ospakizunek, egonaldiak edo bidaiek eragindako gastuak.

e) Iruñeko Udalaren berezko eskumen edota jardueratzat jotzen diren jarduerak, hala nola banakako gizarte arreta, lan-zerbitzuak, indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta, etab.; Nafarroako Gobernuarenak, hala nola irakasleen/ikasleen prestakuntza eskola ingurunean, dibertsitatearen eta mendekotasunaren arreta, etab., eta beste entitate batzuenak, hala nola unibertsitate eta elkargo profesionalenak, jarduerak garatzeko mintegi, espezialitate, gradu, aditu, master eta abarretan.

f) Material inbentariagarria erosi eta mantentzeak, altzariak erosteak edo lokalak egokitzeak eragindako gastuak. (Aipatu material informatikoa izan ezik).

g) Jardueretara joaten direnendako diru-ekarpenak.

h) Gauzazko ekarpenak irakasleendako edo hizlariendako ordainketa gisara.

i) Ekitaldi eta deialdi politikoak: manifestazioak, elkarretaratzeak, grebak eta abar.

j) Kirol eta ariketa fisikoaren arloko jarduerak, banaka zein taldeka.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: Diruz laguntzen ahalko dira 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 15era bitarteko epean egindako gastuak.

M. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 100

Erakunde onuradunak aurreikusten badu jarduera gauzatzeko hirugarren batzuk azpikontratatzeari, berariaz adierazi beharko du proiektuaren eskaera-dokumentazioan. Planifikazio- eta koordinazio-gastuak zeharkako gastutzat hartuko dira eta oinarri hauetan jasotzen den ehunekoa hartuko dira aintzat.

Azpikontrataturako enpresak edo erakundeak lankidetzaren betebeharrari lotuta egon behar dira, deialdi honetan diruz laguntzen ahal diren gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez ezarritako mugak betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikulua).

Berariaz, ezin izanen dira azpikontratatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30.7 artikuluan jasotako pertsonak edo erakundeak.

Onuradunak inola ere ezin izanen du itunik egin honako hauekin, dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean burutzeko:

a) Ordenantza honetako 10. artikuluan jasotako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.





NORGEHIAGOKAKO

- b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.
- c) Eragiketaren kostu osoaren portzentaje bat kobratzen duten bitartekari edo aholkulariekin, non eta ordainketa hori egindako lan edo zerbitzuaren merkatuko balioa erreferentzia hartuta justifikatzen ez den.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, baldintza hauek bete ezean:
- Kontratazioa merkatuaren ohiko baldintzekin bat egiten denean.
 - Organo emailearen baimena aldeztu aurretik lortzen dutenean.
- e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu eta, betekizunak ez betetzeagatik edo behar adinako baloraziorik ez izateagatik, dirulaguntzarik lortu ez duten pertsonak edo entitateak.

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko figura gisa.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko ☐ behar: BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik baztertuko dira Iruñeko Udalaren finantzaketa duten proiektuak edo jarduerak, kontratu zein hitzarmenen bidez, edo haien izaera edo edukia dela-eta, Udalaren dirulaguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede izan daitezkeenak.

Bateragarriak izanen dira proiektu beraren barruan Udaletik kanpoko edozein administrazio, erakunde edo pertsonari jarduera bereiztu eta desberdinetarako eskatzen zaizkion dirulaguntzak.

Ez dira diruz lagunduko Udalaren beste deialdi batzuetan aldi berean eta jarduera bererako finantzaketa eskatu duten jarduerak; jarduera bakoitzean hori lotutako gastu guztiak aintzat hartuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da





1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo

☒ ordainketa. Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: % 100

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Dirulaguntzaren % 100 ordainketa aurreratu bakarrean ordainduko da. Entitate onuradunek justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dituzte deialdi honen P) letran ezarritako epean eta moduan.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira (aurkeztutako proiektuaren kostu osoa), eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren adinakoa.

a) Memoria-txostena xede horretarako diseinatutako ereduarekin bat: "Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz" eta "Finantza-txostena". Eredua deialdiari atxikitako V. ERANSKINEAN jaso da.

b) Udalaren dirulaguntza erabiliz egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, ikus entzunezkoak eta abar), bai eta egindako publizitatearena ere.

c) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, ereduarekin bat.

d) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak, nominak, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kuxako tiketak.

Fakturak indarra duten lekeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena –hala badagokio, ordu kopurua eta orduko prezioa sartuta–, zigilua, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jaulkitzen duenaren sinadura. Halaber, PFEZaren atxikipena eta ordainketa ere zehaztuko dira.

e) Zeharkako gastuak justifikatzeko, gastu bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira. (jardueraren garapen denbora osorik hartzen duten nominak; laguntza tekniko, argindar, telefono eta abarren fakturak)

f) Entitatearen Iruñeko egoitzaren gastuak diruz lagundutako jarduera egiten den aldikoak izanen dira eta harekin bat etorriko dira.

g) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez, edo bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuta.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046



NORGEHIAGOKAKO

h) Borondatez aurkezten ahal den beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren jardun edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.

i) Ebaluazio-memoriako txostenean bide publikoan egindako jardueretarako Jasangarritasunari buruzko berariazko atal bat sartu behar da, ezarritako neurriak zehaztuta (hondakinen kudeaketa, energia, materialak); froga grafikoak aurkeztuko dira (birziklatze guneen eta material berrerabilgarriaren eta abarren argazkiak), foru araudia betetzen dela eta Jasangarritasun Plana gauzatu dela frogatzen dutenak.

Justifikazioari dagozkion agiriak elektronikoki aurkeztu beharko dira. Dena den, unitate kudeatzaileak jatorrizko dokumentazioa eskatzen ahalko du, behar diren egiaztapenak egiteko.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena

aurkeztuta. Bestelako edukirik: ☒ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko epe bakarra dago, eta 2026ko abenduaren 20an amaituko da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak bategi ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- Konprometitutako emaitzak eta jarduerak osorik edo parte batez betetzen ez badira.

- Entitate onuradunak proiektuaren gauzapenean aurrez baimendu ez diren aldaketak egiten dituenean, deialdi honen F letran ezarritako baldintzekin bat.

R. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatzen ahal da



002013511852628991046

- Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

I., II. eta III. eranskinak dirulaguntzak eskatzeko izapide telematikoan beteko dira.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. ERANSKINA: Memoria-formularioa proiektuari buruz.

V. ERANSKINA: Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz, eta finantza-txostena.

VI. ERANSKINA: Erantzukizunpeko adierazpena, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoan eskatutako baldintzak betetzeari buruz.

VII. ERANSKINA: Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasun-betebeharrari buruz.

VIII. ERANSKINA: Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzen ordenantza orokorrean eskatzen diren azpikontratatzeko baldintzak betetzeari buruzkoa

IX. ERANSKINA: Erantzukizunpeko adierazpena: dirulaguntzen justifikazio

telematikoa. X. ERANSKINA: Iruñeko ekitaldi jasangarrietarako gida

OHAR GARRANTZITSUA: Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.

